

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Morrás eta Pejenaute kontseilariak Espainiako Vueltako bulego iraunkorrak ikustera joan dira, Iruñeko NUPen kanpusera

Bulegoan txirindularien itzuliko administrazio-jarduerak burutzen dira, eta uneoro dago komunikatuta Nafarroako Larrialdi Agentziarekin

Jueves, 16 de agosto de 2012

Javier Morrás Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria eta Jesús Pejenaute Gizarte Politiken kontseilaria Iruñean jarri duten Espainiako Vueltarako bulego iraunkorra ikustera joan dira gaur goizean. Unipublic enpresak, itzuliaren antolatzaileak, jarri du bulegoa Nafarroako Unibertsitate Publiko Arrosadia kanpuseko El Sario eraikinean.

Bisitaren hasieran, Morrás kontseilariak adierazi du Nafarroako Gobernuak "hainbat

hilabete" daramatzala Vueltako larrialdietarako eta segurtasunerako antolakuntza prestatzen, "arriskutsua izan daitekeen kirol-ekitaldi konplexua delako". Horrez gain, adierazi du Foruzaingoko ehun bat agentek eta Iruñeko beste ehun bat agentek itzuliko segurtasunaz arduratzen den Guardia Zibilekin batera jardungo dutela.

Bestalde, Pejenaute kontseilariak azpimarratu du Espainiako Vueltan Nafarroan hasteak Foru Komunitatea nabarmen sustatuko duela eta ondorio ekonomikoak izango dituela. Horri lotuta, haxe esan du: "atzotik hoteletako 1.000 plaza hartuta daude Vueltarako". Halaber, adierazi du entzierroko tartearen Iruñeko lehen etapako ibilbidean sartzea "ohi ez bezalako, desberdina eta ikusgarria" dela.

Bisitaren hasieran, Patxi Fernández Barneko zuzendari nagusia, Pruden Induráin Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, María Caballero eta Paz Prieto Iruñeko Udaleko zinegotziak, Jesús María Pintor NUPeko Irakaskuntzako errektoreordea eta Javier Guillén Espainiako Vueltako zuzendari nagusia.

Administrazio-zereginak, akreditazioak eta prentsa-aretoa

Espainiako Vueltako bulego iraunkorrean, atzotik hasi eta



Ezkerretik eskuinera: Fernández, Caballero, Guillén, Morrás kontseilaria, Pintor eta Pejenaute kontseilaria bisitan.

abuztuaren 19ra arte, txirrindularien itzuliko administrazio-jarduera guztiak burutu eta antolakuntzako langileen, Vueltako taldeen eta gonbidatuen akreditazioak kudeatzen dituzte.

Bulego iraunkorren akreditazioen zentroko 12 lanpostu, prentsa-aretoko 100 lanpostu (tokiko kazetariarentzat zein itzuli osoa jarraitzen dutenentzat) eta 11 bilera-gela daude. Horiez gain, bulegoaren kanpoaldean Vueltako trailer bat dago eta bulego iraunkorreko zerbitzurako 150 turismo eta hainbat kamioi aparkatzeko lekua dago.

Larrialdietako arreta Vueltan

Espainiako Vueltan Nafarroan egingo diren bi etapetan sor daitezkeen larrialdietako arretari dagokionez, Nafarroako 112-SOS Larrialdiak Kudeatzeko Zentroa uneoro egongo da komunikatuta El Sario eraikinean dagoen Vueltako Koordinazio eta Segurtasun Zentroarekin.

Bestalde, Nafarroako Larrialdi Agentziak lehen etapako ibilbidearen ondoan eta Gaztelu plazaren eta Zezen plazaren inguruetan suhiltzaile taldeak eta anbulantziak jarriko ditu lasterketan laguntza emateko antolakuntzari babesa eman eta, hala gertatuz gero, hurbiltzen den jendea artatzeko.

Horrez gain, kontuan hartu da ibilgailuek, stand-ek, taulek eta karpek ez dutela oztopatzen sarbidea eta leku horietatik irteteko bidea hala egin behar izanez gero. Larrialdietako zerbitzuek txirrindulariak etapa burutzen ari direnean jarraitu beharreko bideak ere zehaztu dira.